

26/2026 Irizpena, uztailaren 24koa: Nafarroako hondakin sanitarioei buruzko foru-dekretuaren proiektua.

Eskatzailea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Txostengilea: Rafael Lara González

Interesa: Hondakin sanitarioen kudeaketa; hondakin sanitarioen sailkapena.

Irizpen honen xedea da Nafarroako hondakin sanitarioei buruzko foru-dekretuaren proiektua.

Estatuko araudian ez dago hondakin sanitarioak oro har arautzen dituen legeria espezifikorik, eta hondakinei buruzko legeria orokorra aplikatu behar da; hau da, 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzekoa. Estatuan ez dagoenez hondakin sanitarioen arloko araudirik, Nafarroako Foru Komunitateak araudi propioa garatu zuen arlo horretan, jarduera sanitarioaren eremuko hondakin-fluxua arautzeko (296/1993 Foru Dekretua, irailaren 3koa, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitateko hondakin sanitarioak kudeatzeko araudia, eta 181/1994 Foru Dekretua, urriaren 3koa, foru-dekretu hori osatzen duena).

Hala, Nafarroako Foru Komunitatean 7/2022 Legea denez hondakinei buruzko esparru juridikoa, lurralde-eremu horretan indarrean dagoen araudia eguneratu nahi da, hondakin sanitarioei buruzko foru-dekretu berri baten bidez, mota horretako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa garatzeko.

Kontseiluak proiektuari buruzko irizpena eman du. Proiektu hori Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan duen eskumenaren babesean egin da, erreferentziako arau-esparruaren testuinguruan, eta egiaztatu da, oro har, zuzenbidearen arabera izapidetu dela.

Proiektuaren edukiari dagokionez, I. kapitulan (Xedapen orokorrak) ezartzen da zein den arauaren xedea (1. artikulua), zenbait definizio zehazten dira (2. artikulua), aplikazio-eremua finkatzen da (3. artikulua) eta hondakin sanitarioak bost taldetan sailkatzen dira (4. artikulua). II. kapitulan hondakin sanitarioen zentro barruko jarduerak arautzen dira (5. artikulutik 13.era), III. kapitulan zentrotik kanpoko kudeaketa-jarduerak arautzen dira (14. artikulutik 19.era), eta IV. kapitulan (Jardueraren antolamendua) ekoizleen betebeharrak arautzen dira (20. artikulua). Kontseiluaren ustez, kapitulu horien edukia bat dator ordenamendu juridikoarekin.

Bestalde, V. kapituluan (21. artikulua) zehapen-araubidea ezartzen da, eta, 4. apartatuaren arabera, *«ez dira zehapentzat joko nahitaezko baimen edo erregistroak ez dituzten zentro, zerbitzu, establezimendu edo instalazioen itxierak, edo zehapen-organoaren erabaki arrazoitu baten bidez horien funtzionamendua eteteak, akatsak zuzendu edo osasun-, higiene- edo segurtasun-arrazoiengatik eskatutakoa bete artekoak»*. Kontseiluaren iritziz, xedapen hori kautela-neurri gisa ezarri beharko litzateke, hala behar bada, 7/2022 Legearen 115. artikuluan ezarritako bermeekin. Hala ere, Kontseiluaren iritziz, ez da ordenamenduaren kontrakoa; izan ere, proiektaturiko arauan jasotako xedapen hori, funtsean, 296/1993 Foru Dekretuaren 15. artikulua transkripzio hutsa baizik ez da.

Aztertutako proiektuak, gainera, xedapen gehigarri bakarra, xedapen iragankor bakarra, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken xedapen bakarra dauzka, baita zenbait eranskin ere.

Nafarroako Kontseiluak ondorioztatu du Nafarroako Hondakin Sanitarioei buruzko Foru Dekretua bat datorrela garatzen duen arau-esparruarekin.